



Jokabide Kodea

Kodifikazioa:

Izaera: Derrigorrezko

Bertsio: 1.0

Jokabide Codea



medicusmundiren Joka Bidea

Jokabide eta Elkartasunezko praktiken Kodea. FAMMEren Batzarra, Madril, 2018ko ekainak 16.

medicusmundiren jardueretan parte hartzen dugun langile edo/eta boluntarioek hitzematen dugu ondorengo arauak eta balioak beteko ditugula:

1. medicusmundiren zintzotasuna eta izen ona zaintzea.

Zintzotasuna da **medicusmundin** indarrean dauden balioetako bat. Hori horrela izanik, erakundearekin lotura duen pertsona orok bere jarrera pertsonala eta profesionala zainduko ditu erakundearen sinergiarritasunaren eta izen onaren alde. **medicusmundirekin** lotura duen pertsona orok hitzematen du saiatuko dela:

- Hausnarketa eta autokritika gaitasunak lantzen, ideiak eta informazioak pertsona onuradunekin, bazkideekin eta laguntzaileekin partekatzen, eta ekarpen berriak onartzen.
- **medicusmundirenganako** gizartearen konfidantza handitzeko lan egiten, parte hartzen duen ekimenetan beti seriooki eta arduraz jokatzuz, profesionaltasun maila gorenarekin.
- Norbere ekintza pertsonal eta profesionalen ardura onartzen, bereziki **medicusmundin** duen estatusak ematen dizkion ahalmenak erabiltzerakoan.
- Tokian tokiko ohiturak eta kulturak errespetatzen, nahiz eta kultur testuinguru haietako arauak eta balioak bat ez etorri kode honetan jasotakoekin edo norberak izan ditzakeenekin, beti ere Giza Eskubideen aurkakoak ez diren heinean.
- Gauden herrialde bakoitzean indarrean den legedia betetzen. Kode hau betetzea inolaz ere ez da egingo herrialde bakoitzak indarrean dituen legezko xedapenen aurka, beti ere Giza Eskubideen aurkakoak ez diren heinean.
- Lanik ez egiten alkoholaren eraginpean, ez eta legez kanpoko subztantziarik kontsumitzen edo edukitzen **medicusmundiren** instalazio, dependentzia eta ibilgailuetan.

2. Pertsona guztiak errespetuz, duintasunez eta justiziaz tratatzea.

medicusmundi osatzen duten pertsona guztiek errespetuz, duintasunez eta justiziaz jokatu dute erakundeko gainontzeko kideekin, pertsona onuradunekin, tokiko bazkideekin, erakundeekin, etab. **medicusmundirekin** lotura duen edonork hitzematen du pertsona ororen eskubideak errespetatuko dituela, haurrenak bereziki, eta saiatuko dela lan giroa elkarren arteko errespetuzkoa izan dadin, zintzoa, duintasunezkoa eta diskriminaziorik gabekoa; kode honen arabera, bereziki hitzematen du:

- Ez duela onartuko ezein indarkeria motarik, ez eta jazarpen, bereizkeria, larderia, esplotazio edo abusurik.
- Ez duela inolako diskriminaziorik egingo ez eta onartuko ere, arraza, erlijio, adin, herritartasun, genero, sexu orientazio edo bestelako zio pertsonalak tarteko.
- **medicusmundin** daukan estatusa ez duela abusuz erabiliko, ez eta egon edo sortu litezkeen boterezko harremanetan; horrek esan nahi du jarrerak eta harremanak inolaz ere ez direla izango esplotaziozkoak, ez eta abusuzkoak edo ustelak ere.

- Ez duela parte hartuko pertsonen kontrako ezein sexu abusu edo esplotazio egintzetan, edozein delarik ere haien adina.
- Ez duela sexu harremanik izango adingabeekin.
- Ez duela diru, lan eskaintza, lan, ondasun edo zerbitzurik eskainiko trukean mesedeak edo sexu harremanak lortzeko edo bestelako jarrera umiliagarri, laidogarri edo esplotaziozkoen truk.

3. medicusmundiren eta norbere interes pertsonalen artean arazo iturri izan daitezkeen egoerak saihestea.

medicusmundik bere baitako pertsona guztien bizitza pribatua errespetatzen du, eta berdin errespetatzen ditu haien eremu pribatuko erabakiak. Ordainetan, **medicusmundik** eskatzen du ezen interes pertsonal edo familia ingurunezkoek erakundearen integritatea auzitan jarri badezakete, **Kodearen Jarraipen Batzordeari** jakinaraztea, bi aldeentzako onuragarriak izan daitezkeen erabakiak hartzeko, nola jasota dagoen “Kodea betetzeko...” atalean.

medicusmundira lotutako pertsona orok hitzematen du:

- Erakundearen duen estatusa ez duela erabiliko ez beretzako abantailak lortzeko, ez eta beretzako negozio aukerak lortzeko ere.
- Baldin eta administrazio publikoko ardura postuetara aurkeztu nahi izanez gero, **medicusmundiri** jakinaraziko diola, erakundearen egiten dituen lanekin sortu daitezkeen gatazkak saihesteko.
- Ez duela ez dirutan ez gauzetan saririk onartuko, ezein gobernu, pertsona onuradun, emaile, hornitzaile edo bestek emandakorik, **medicusmundin** egindako lana bide dela. Baldin eta opari trukea kultur ohitura arrunta bada, ziurtatu beharko du opari horiek arrazoizkoak direla, eta **medicusmundiren** eskura jarriko ditu.
- Ustelkeria mota oro salatuko duela, eta ez duela ez agindu, ez onartu, ez emango inolako eroskeriarik.

4. Arduraz kudeatzea baliabideak, informazioa eta datuak.

medicusmundirekin loturiko pertsona orok behar bezala erabiliko ditu erakundearen baliabideak, eta ez ditu bere onurarako erabiliko. Halaber, arduraz kudeatuko ditu erakundearen baitan sorturiko datu pertsonalak, informazioa eta ezagutza. **medicusmundirekin** loturiko pertsona orok hitzematen du:

- Zuhurtziaz erabiliko duela **medicusmundiren** lanean kudeatu behar duen informazio bereziki babestu beharrekoa edo konfidentziala.
- Bere ardurapekoak diren edo eskura dituen baliabideak, informazioa eta datuak kudeatzeko ezarritako arauak zorrotz beteko dituela.
- Baimena eskatuko duela **medicusmundiren** izenean adierazpenak egiteko, baldin eta ez bada bere lana, eta saiaturiko dela ezein ondorio kaltegarri nahigabeko saihesten.
- **medicusmundiren** baitan egin beharreko lanak egiteko, erakundearen eskura jarritako diru, baliabide eta ondasunen erabilera egokiaz arduratuko dela (adibide: ibilgailuak, bulego

altzariak, **medicus**mundik emandako ostatua, internetaren eta ordenagailuen erabilera, posta elektronikoa eta intraneta...).

5. Giza eskubideak sustatzea.

medicusmundik uste du pertsonak berezkoak dituela giza eskubideak, gizatasunetik beretik sortuak direla eta inflexio puntu bat direla gure lankidetzaz jardunean, zeinak zuzendua izan behar duen giza eskubideen printzipio unibertsal, preskribaezin, bortxaezin, zatiezin, besterenezin, nahitaezko, partehartzaile eta ez diskriminatzaileak tarteko. **medicus**mundirekin loturiko pertsona orok hitzematen du:

- Pertsona orok dituen eskubideen alde egingo duela, muga, kultura, arraza, sexu eta erlijioez gaindi, baita giza garapenerako eta osasunerako eskubideen alde.
- Ziurtatuko duela bere jarrera bat datorrela **medicus**mundik onetsi duen giza eskubideen markoarekin.

6. Ingurumena, osasuna eta ongizatea zaintzea.

Azken urteotan zientziaren eta teknologiaren garapen handiak jendearen osasuna eta ongizatea hobetzen lagundu badute ere, gora egin duen desberdinkeriak areagotu egin du herrialde aberastuagoen eta txirotuagoen arteko arrakala, eta larriki eragin du pertsonen ongizatean. Halaber, giza jarduerak eragindako ingurumen narriadurak ere osasunean eragiten du.

Gauzak horrela, **medicus**mundiri loturiko pertsona orok hitzematen du:

- Aldeko neurriak hartuko dituela ingurugiroa babesteko, eta bere jarduerak ingurugiroan izan ditzakeen eragin kaltegarriak gutxitzen ahaleginduko dela.
- Norbere eta besteren segurtasun, ongizate eta osasunaren alde, ez duela hartuko beharrezkoa ez den arriskurik.

medicusmundiren parte izatea erabaki dudalarik, hitzematen dut niri dagozkidan betebeharrak egingo ditudala, **medicus**mundiren **Jokabide eta Elkartasunezko Praktiken Kodea** beteko dudala, eta hala behar izanez gero Kode honen Jarraipen Batzordeari laguntza emango diodala.

- Izena _____
- Postua _____
- Sinadura _____
- Data _____